

IKASTETXEKO TXOSTENA

Lehen Hezkuntzako 4. maila

Ikastetxearen kodea: LH1

AURKEZPENA

Hezkuntzako Lege Organikoan (LOE) eta Euskal Autonomia Erkidegorako Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duen Dekretuan zehaztutako Ebaluazio Diagnostikoaren lehen aplikazioa garatu zen 2008-09ko ikasturtean. Prozesu horren ondorioz, funts publikoekin mantendutako ikastetxe guztiek jaso zuten ikastetxeko eta ebaluatutako taldeen emaitzak biltzen zituen txostena; horrez gain, ebaluazio horretan parte hartu zuten ikasle guztiek jaso zuten une hartan ebaluatutako oinarrizko konpetentzia bakoitzean lortutako emaitzak biltzen zituen txosten pertsonalizatua.

Bigarren aplikazioan, 2009-10 ikasturtean egindakoan, 2009an egindako Ebaluazio Diagnostikoaren eremuan erabilitako irizpide, ezaugarri eta prozesu berberak mantendu ditugu emaitzak konparatu ahal izateko. Hala ere, aldaketak txikiak egin dira ebaluazio-prozesu osoaren kalitatea hobetu ahal izateko.

Txosten honen berrikuntza nagusia, zalantzarik gabe, ikastetxeek emaitzen bilakaera ikusteko izango duten aukerarena da. Emaitzak ikasturte guztietan ebaluatutako oinarrizko hiru konpetentzia finkoetan ikus daitezke: hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia euskaraz eta gaztelaniaz, eta matematikarako konpetentzia.

Gainera, txosten horretan beste aldaketa azpimarragarri batzuk ere txertatu ditugu ikastetxeek eta hezkuntza-komunitateko beste sektore batzuek egindako proposamenak eta iradokizunak aintzat hartuta. Gainera, grafiko guztiak ulerterrazagoak eta argiagoak izan daitezzen ahalegin berezia egin dugu.

Azkenik, beharrezkoa da berriro gogoraraztea Ebaluazio Diagnostikoak ez duela inola ere irakasleek egindakoa ordezkatzeko eta ez duela curriculum-izaerarik; izan ere, ikastetxe bakoitzean edukien garapen espezifikotik bereizita dago. Ebaluazio Diagnostikoaren helburua ikasleek eskuratutako ikaskuntzak modu egokian aukeratzeko eta aplikatzeko, eta beren esperientzia pertsonaletik eta hezkuntzakotik gertu dauden egoera eta testuinguru ugarietan arazoak ebazteko duten gaitasuna baloratzea da.

2009-10 ikasturtean ebaluatu diren konpetentziak honako hauek izan dira:

- **Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia euskaraz.**
- **Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia gaztelaniaz.**
- **Matematikarako konpetentzia.**
- **Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.**

AURKEZPENA

Txosten honen zazpi ataletako bakoitzean, bertan aurkezten diren datuen ezaugarrien azalpen labur bat eskaintzen da, datuak interpretatzen laguntzen duten zenbait irizpiderekin batera. Ikastetxeek Hezkuntzako Ikuskaritzaren eta Berritzeguneetako teknikarien laguntza izango dute txostena irakurtzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta azterketa sakonagoa egin ahal izateko.

Txostenaren atalak honako hauek dira:

1. Ikastetxeko eta parte hartu duen ikastalde(eta)ko **emaitzak**, ebaluatzen diren oinarritzko konpetentzietako bakoitzean.
2. Ikasleen banaketa **errendimendu mailaren** arabera, ebaluatutako oinarritzko konpetentzia bakoitzean.
3. Konparazio-datuak ikastetxearen **maila sozioekonomikoa eta kulturalaren** arabera.
4. Konparazio-datuak **geruza** ezberdinen arabera (hizkuntza-eredua eta hezkuntza-sarea).
5. Ikastetxeak **lortutako emaitzaren** eta maila sozioekonomikoa eta kulturala kontuan izanik **espero zitekeen emaitzaren** arteko erlazioa.
6. **Emaitzen bilakaera** erreferentziazat 2009an eta 2010ean ikastetxeak lortutako batez bestekoa hartuta.
7. **Ikasleen** emaitzen **banaketa** ebaluatutako talde bakoitzean.

Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzatzat aurkezten den informazio guztiaren helburua ikastetxeetan **hausnarketa- eta hobekuntza-prozesuak sustatzea** da, erabakiak kanpoko datuetan oinarriturik hartu ahal izateko eta, horrela, beren irakas-jarduera hobetzen eta ikasleen beharrei eta ezaugarriei egokitzen joan ahal izateko.



IKASTETXEARI BURUZKO ZENBAIT DATU

• Ebaluatutako ikastalde kopurua:

9

• Ebaluatutako ikasle kopurua:

	Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia euskaraz	Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia gaztelaniaz	Matematikarako kompetentzia	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	Galdera-sortak
Ikasleak GUZTIRA hasierako zerrendan	66	66	66	66	66
Puntuazioan sartutakoak	62	63	63	63	66
Puntuazioan sartu ez direnak	4	3	3	3	0
Ez aurkeztuak	7	7	7	5	5
Erantzun dutenak	55	56	56	58	61

• Ikasle etorkinen ehunekoa ebaluatutako ikasmilan:

Etorkinen ehunekoa ikastetxean		Puntuazioan sartutako etorkinen ehunekoa Euskadin
Guztira	Puntuazioan sartutakoak	
7.56	8.70	6.3

• Irakasmilarekiko adin-egokitasunean dauden ikasleak Lehen Hezkuntzako 4. mailan (1999an jaiok).

Ehunekoa ikastetxean		Ehunekoa Euskadin
Guztira	Puntuazioan sartutakoak	
79.17	82.61	91.9

IKASTETXEARI BURUZKO ZENBAIT DATU

Errendimendu-proba erantzuteko ikasleek erabilitako hizkuntza ez da neutroa, ikerketa eta ebaluazio ugari frogatzen duen moduan, emaitzetan eragin argia baitu horrek. Hizkuntza erabiltzen duen edozein errendimendu-proba, neurri batean, proba egiten duenaren hizkuntza-gaitasunak neurtzeko tresna ere bada. Eragin hori are handiagoa da ikaslearen familia-hizkuntza ez datorrenean bat probaren aplikazio-hizkuntzarekin eta, gainera, ebaluazioa adin goiztiarretan egiten denean; izan ere, adin horietan, ikasleek, oraindik ez dute bigarren hizkuntzan, konpetentzia ez-linguistikoei dagokienez, beren ezagutzak eta abileziak erabat erakusteko hizkuntza-konpetentziaren behar adinako garapen mailarik.

Arrazoi hori dela eta, jarraian, ebaluazio honetan parte hartu duten ikastetxeko ikasleen hizkuntza-ezaugarriei buruzko bi datu biltzen ditugu: lehenik eta behin, galdera-sortatik jasotako ikasleen familia-hizkuntzari buruzko datuak azaltzen dira; bigarren, konpetentzia ez-linguistikoetako probetan erantzunak emateko ikasleek erabili duten hizkuntzari buruzko datuak azaltzen dira, ikastetxeak aplikazio-hizkuntzaren inguruan hartutako erabakia oinarritzat hartuta.

- Ebaluatutako hezkuntza mailako ikasleen ehunekoa, familia-hizkuntzen arabera:

Familia-hizkuntza	Ikastetxeko ehunekoa	Euskadiko ehunekoa
Euskara	1.63934426	26.3
Beste hizkuntza bat	93.4426229	71.0
Beste egoerak	4.91803278	2.7

- Ikasleek konpetentzia bakoitzean erantzuteko erabilitako hizkuntza, hizkuntza-ereduen arabera:

Konpetentziak	A	B	D
Matematika		Fam.	Gazt.
Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia		Fam.	Eusk.

Eusk: ikasleek probako erantzunak euskaraz eman dituzte.

Gazt: ikasleek probako erantzunak gaztelaniaz eman dituzte.

Fam: ikasleek probako erantzunak familia-hizkuntzan eman dituzte (euskaraz edo gaztelaniaz).

Hemen ikastetxearako ohar berezi bat ipin dezake. Ikastetxe honek lau ikasle baino gutxiago dauka puntuazioan sartzeko talde batean. beraz. taldeko datuak Euskadiko batez bestekoak dira.


1. OINARRIZKO KONPETENTZIA BAKOITZEKO EMAITZAK

Lehen atal honetan ikastetxean eta ebaluazioan parte hartu zuten ikastalde bakoitzean oinarrizko konpetentzia bakoitzean lortutako batez besteko emaitzak aurkezten dira.

2009ko aplikazioaren txostenean egin genuen moduan, emaitzak **hiru konpetentzia-mailatan banatuta aurkezten dira: hasierako maila, erdi-maila eta maila aurreratua**. Maila bakoitza ikasleak maila horretan planteatzen zaizkion egoerei irtenbidea emateko behar dituen ezagupenek, trebetasunek eta gaitasunek definitzen dute. Ikasle bat maila jakin batean dagoenean, maila horretako eta beheragoko mailetakoko trebetasunetarako gauza dela esan daiteke.

Ikasle bakoitzak puntuazio jakina lortzen duenez, maila aurreratuan sailkatutako ikaslea maila horri lotutako gutxieneko puntuazioa edo handiagoa lortu duena izango da. Erdi-mailan maila aurreratuan egoteko gutxieneko puntuazioa baino txikiagoa eta hasierako mailarako puntuazioa baino handiagoa lortu duten ikasleak daude kokatuta. Azkenik, hasierako mailan daude kokatuta erdi-mailari lotutako gutxieneko puntuazioa lortzen ez duten ikasleak. Euskarazko zein gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren eta matematikarako konpetentziaren kasuan, aurreko ikasturteko ebaketa-puntuak mantendu dira.

Txosteneko grafiko guztietan ikus daitekeenez, ikastetxe eta ikastalde bakoitzeko batez besteko puntuazioa ez da puntu batez adierazten, barra luzeago edo laburrago batez baizik. Barrak esan nahi du ikastetxeko edo ikastaldeko puntuazioa, %95eko probabilitatearekin, barra barruko puntu batean dagoela, erdialdean egoteko probabilitatea muturretan egotekoa baino handiagoa delarik.



1. OINARRIZKO KONPETENTZIA BAKOITZEKO EMAITZAK

Kasu batzuetan barren luzera desberdina da. Bi arrazoik azaltzen dute diferentzia hori:

- Bata, konpetentzia bakoitza edo konpetentzietako dimentsio bakoitza ebaluatzeko item kopurua aldatzen du. Horrela, zenbat eta item kopuru handiagoa izan, gero eta laburragoa izango da barra; ondorioz, neurketa-errorea txikiagoa da eta emaitzak fidagarriagoak dira.
- Bestea, ikastaldeko ikasle kopuruaren eragina, baita haien emaitzen sakabanatzea ere.

Hizkuntza-komunikaziorako bi konpetentzien kasuan (*euskaraz eta gaztelaniaz*), ikastetxeko eta ikastaldeko emaitza orokorraz gain, ebaluatu diren hiru dimentsioetan lortutakoak ere aurkezten dira: *entzumena, irakurmena eta idazmena*; izan ere, behar adina item dago abilezia bakoitza modu isolatuan neurtu ahal izateko.

Matematikarako konpetentziaren eta Gizarterako eta herritertasunerako konpetentziaren kasuetan, emaitza orokorrek dimentsioen arabera ere azaltzen dira, baina haien balioa txikiagoa da. Izan ere, haietako bakoitzean sartutako item kopurua ez da behar adinakoa dimentsio bakoitzaren batez besteko puntuazioaren fidagarritasuna bermatzeko. Emaitza horiek joeraren adierazle gisa soilik hartu behar dira eta ikastetxean hausnarketa egiten laguntzeko soilik eskaintzen ditugu. Bistakoa denez, bi konpetentzia horietan, dimentsioen araberrako emaitzak ikastetxeko batez bestekoarekin lotuta soilik eskaintzen ditugu eta ez ebaluatutako talde bakoitzaren arabera.

Azkenik, oso garrantzitsua da hurrengo hiru alderdi hauek kontuan izatea:

- a) Ebaluatzen den irakasmilan ikastalde bakarra duten ikastetxeen kasuan, ikastetxeko batez besteko puntuazioa eta ikastaldekoa berdina dira.
- b) Lehen atal honetako grafikoetako batez besteko emaitzak hurrengo ataletako grafikoetan ere mantentzen dira, datu berriekiko konparazioak egiteko balio dutenak direlako.
- c) Grafiko bakoitzean konpetentziaren maila bakoitzak betetzen duen azaleraren neurriak ez du loturirik irakasmila bakoitzean sartuta dagoen ikasleen ehunekoarekin; izan ere, konpetentzia bakoitzean maila horietako bakoitzak biltzen duen puntuazio-heinaren araberrakoa da.

Azkenik, oso garrantzitsua da kontuan izatea konpetentzia bakoitzean ezarritako ebaketa-puntuak ezberdinak direla; izan ere, proba bakoitzaren ezaugarrien eta ikasleen errendimenduaren araberrakoa dira. Hori dela eta, probak egiteko garaian irizpide komunak erabili ditugun arren, ezin dira oinarritzko lau konpetentzien emaitzak elkarrekin konparatu, independenteak baitira.

Lehen atal honetan aurkezten diren grafikoak honako hauek dira:

Grafikoak

1. **grafikoa:** Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak (euskara).

2. **grafikoa:** Hizkuntza-komunikazioaren dimentsioetako emaitzak (euskara).

3. **grafikoa:** Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak (gaztelania).

4. **grafikoa:** Hizkuntza-komunikazioaren dimentsioetako emaitzak (gaztelania).

5. **grafikoa:** Matematikarako konpetentziako emaitzak.

6. **grafikoa:** Matematikarako konpetentziaren dimentsioetako emaitzak.

7. **grafikoa:** Gizarterako eta herritertasunerako konpetentziako emaitzak.

8. **grafikoa:** Gizarterako eta herritertasunerako konpetentziaren dimentsioetako emaitzak.

1.1. HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAKO EMAITZAK (EUSKARA)

1. grafikoan zure ikastetxeak ebaluazioaren irakasmilan *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* lortu duen batez besteko puntuazioa adierazten da, zure ikastetxean ebaluazioan parte hartu duen ikastalde bakoitzeko batez bestekoarekin batera. Grafikoaren ostean, **1. taulan**, konpetentzia maila horietako bakoitza deskribatzen da.

Ikastetxeko eta talde bakoitzeko batez besteko puntuazioa probako entzumeneko eta irakurmeneko itemak soilik kontuan hartuta kalkulatu da, baina ez dira kontuan hartu idazmenekoak. Izan ere, entzumeneko eta irakurmeneko itemak egonkorragoak eta alderatzeko errazagoak dira; aldiz, idazmenari dagozkionak erabat aldatzen dira ebaluazio bakoitzean eta, horrenbestez, horiekin ezin da konparaziorik egin.

Ikastetxeko batez besteko puntuazioaz eta ebaluazio honetan parte hartu zuten talde guztietakoaz gain, ikastetxeko hizkuntza-eredu guztiek lortutako batez besteko puntuazioa ere azaltzen da zehaztuta, eredu bat baino gehiago dutenen kasuan.

Konpetentzia horretako emaitza aztertzeko ezinbestekoa da ikastalde bakoitzaren hizkuntza-eredua kontuan hartzea, eredu ezberdinetakoak baldin badira. Konpetentzia horretan hizkuntza-eredu bat baino gehiago egoteak eragin handia izan dezake ikastetxeko batez besteko puntuazioan, puntuazio hori ikastetxean ebaluazioan parte hartu duten ikastaldeetako ikasle guztien batez bestekoa baita.

1. grafikoa. Hizkuntza-komunikazioa euskaraz.
Ikastetxeko eta ikastaldeetako batez besteko emaitzak.



1.1. HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAKO EMAITZAK (EUSKARA)

1. taula. Konpetentzia-mailen deskribapena. *Hizkuntza-komunikazioa euskaraz.*

Hasierako maila

Maila honetako ikasleak nolabaiteko zailtasunak ditu euskarazko testuak ulertzeko. Ahozko zein idatzizko testu hurbiletan (elkarrizketak, ohar laburrak) informazio garrantzitsua (datuak batez ere) ateratzeko gai da. Halaber, testu labur eta argietan zentzu orokorra eta ideia nagusiak identifikatzen ditu. Zenbait kasutan, eta irudien laguntzaz, edukia interpretatzen du, inferentzia zuzenak egiten ditu, eta ohiko erabilerako testuetan testu-mota antzematen du.

Beste alde batetik, maila honetako ikasleak euskaraz testu osatu gabeak idazten ditu, eta batzuetan ez du betetzen eskatutako komunikazio-helburua. Zenbaitetan datuak sartzen ditu, baina testu ez-egituratuetan eta akatsekin.

Erdi-maila

Hasierako mailan deskribatutakoaz gain, erdi-mailan dagoen ikasleak aise egiten ditu entzumen, irakurmen eta idazmen lanak. Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gai da mota ezberdinetako ahozko zein idatzizko testuetan. Inferentziak egiten ditu eta testuaren edukia bere ideien arabera interpretatzen du. Bere ikasmilari dagozkion ohiko hiztegia eta esapideak antzematen ditu eta, horrekin batera, igorlea eta testu-mota identifikatzen ditu.

Beste alde batetik, maila honetako ikasleak bere interesen inguruko testu sinpleak (narrazioak adibidez) idazten ditu. Testuaren xedea kontuan izaten du, erregistro egokia aukeratzen du, informazioa oinarritzko eran egituratzen du, eta bere ikasmilari dagozkion gramatika, ortografia eta lexiko arau gehienak betetzen ditu.

Maila aurreratua

Hasierako eta erdi-mailan deskribatutakoaz gain, maila aurreratuan dagoen ikasleak lan konplexuagoak egiten ditu, eta gai da zailtasun handiagoko testuak erabiltzeko. Xedea eta eduki zehatzak identifikatzen ditu eremu ezberdinetako (familiakoak, literarioak, komunikabidetakoak) testuetan. Era berean, inferentzia zuzenak eta zeharkakoak egoki egiten ditu, testuak laburtzen ditu, eta erabilitako hiztegia antzematen du.

Testuak idazterakoan, maila honetako ikasleak testuaren xedea kontuan izaten du, erregistro egokia eta era askotako hizkuntza-baliabideak erabiltzen ditu. Gai da helburua betetzeari begira behar den informazio garrantzitsua hautatzeko, eta gramatika, ortografia eta lexiko arauak betetzen ditu.

1.2. HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOA EUSKARAZ. DIMENTSIONETAKO EMAITZAK

2. grafikoan ikastetxeak eta ikastalde bakoitzak ebaluatutako **hiru dimentsioetan (Entzumena, Irakurmena eta Idazmena)** lortu dituzten batez besteko emaitzak aurkezten dira.

- *Entzumena* era ezberdinetako zenbait testutan oinarritutako galderen bidez ebaluatzen da. Galdera horiek ikasleak, besteak beste, hurrengo honetarako duen gaitasuna neurtzen dute: testuen zentzu orokorra eta xedea identifikatzeko, informazio zehatza identifikatu edo hautatzeko eta testua kritikoki interpretatzeko.
- *Irakurmena* luzera eta era ezberdinetako testuei buruzko galderen bidez ebaluatzen da. Galderek ikasleak hurrengo honetarako duen gaitasuna neurtzen dute: lehen eta bigarren mailako ideiak bereizteko, testuaren helburua eta igorlearen xedea identifikatzeko eta, besteak beste, testuko informazio ezberdinak erlazionatzeko.
- *Idazmenean* ikasleek gutxienezko hitz kopurua (60 hitz Lehen Hezkuntzan eta 100 hitz DBHn) eta ezaugarri jakin batzuk dituen testu bat idatzi behar dute. Testu idatziaren balorazioan hurrengo hau hartzen da kontuan: emandako gaiaren egokitasuna eta garapena, testu idatziaren koherentzia eta kohesioa eta erabilitako lexikoa, gramatika eta ortografia.

2. taulan, ebaluatutako hiru dimentsioetan hiru konpetentzia-mailak azaltzen dituzten adierazleak daude aurkeztuta.

2. grafikoa. Hizkuntza-komunikazioa euskaraz.

Ikastetxeko eta ikastaldeetako batez besteko emaitzak konpetentziaren dimentsioetan.



1.2. HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOA EUSKARAZ. DIMENTSIONETAKO EMAITZAK

2. taula. Hizkuntza-komunikazioa euskaraz. Dimentsioetako mailen deskribapena.


Erabilitako testuak	Hasierako maila Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira:
ENTZUMENA - Elkarrizketa. - Ipuina. - Albistea.	- Testu laburrak entzun ondoren informazio zehatza identifikatu. - Batzuetan testuko ideiak erlazionatu eta edukiari buruzko inferentziak egin. - Batzuetan, oso ohiko testuetan (ipuina) testu-mota identifikatu.
IRAKURMENA - Elkarrizketa informala. - Oharra. - Prentsa elkarrizketa. - Literatur testuaren zatia. - Albiste laburrak.	- Idatzizko testu sinpleetan (elkarrizketa informala, oharra) informazio zehatza identifikatu. - Ohiko testuetan zentzu orokorra identifikatu. - Batzuetan haurrentzako aldizkarietako testuetako informazio-dukia laburtu.
IDAZMENA - Narrazioa txikitako gertakizunen bat kontatzen.	- Proposatutako helburua zailtasunez bete. - Batzuetan gai zerrendak idatzi, baina ideiak garatu gabe. - Edukiak errepikatu, narrazioaren egitura errespetatu gabe. - Hiztegi mugatua erabili; esaldiak bukatu gabe eta akatsekin.
	Erdi-maila Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira:
ENTZUMENA - Elkarrizketa. - Ipuina. - Albistea.	- Testuaren zentzu orokorra identifikatu. - Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak antzeman. - Testu ezberdinen edukiari buruzko inferentziak egin. - Batzuetan testu-mota (ipuina, albiste laburra) antzeman.
IRAKURMENA - Elkarrizketa informala. - Oharra. - Prentsa elkarrizketa. - Literatur testuaren zatia. - Albiste laburrak.	- Testu ezberdinetako informazio garrantzitsua aukeratu (oharra, haurrentzako aldizkari bateko elkarrizketa, literatur testu laburra). - Igorlea antzeman eta edukiari buruzko inferentziak egin. - Bere ikasmillari dagokion hiztegia ezagutu.
IDAZMENA - Narrazioa txikitako gertakizunen bat kontatzen.	- Informazio eta erregistro egokiak aukeratu, bere esperientziaren inguruneke testu bat idazteko. - Eskatutako egoeretako baten bat bakarrik aipatu, behar bezala garatu gabe. - Batzuetan akatsak egin, baina komunikazioa oztopatu gabe.
	Maila aurreratua Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira:
ENTZUMENA - Elkarrizketa. - Ipuina. - Albistea.	- Informazio garrantzitsua aurkitu. - Era ezberdinetako testuak (elkarrizketa, ipuina, albistea) entzun ondoren, informazioa laburtu. - Eredu ezberdinetako ahozko testuetan testu-mota eta hiztegia antzeman.
IRAKURMENA - Elkarrizketa informala. - Oharra. - Prentsa elkarrizketa. - Literatur testuaren zatia. - Albiste laburrak.	- Testuaren xedea identifikatu (nobela, eskola-aldizkari digitaleko albistea). - Testu laburretako ideien arteko erlazioa antzeman. - Inferentzia zuzenak eta zeharkakoak egin. - Biografia-testu labur baten dukia laburtu (haurrentzako aldizkari batekoa).
IDAZMENA - Narrazioa txikitako gertakizunen bat kontatzen.	- Testu egoki eta zuzenak idatzi planteatutako xedea betetzeko (narrazioa txikitako gertakizun bati buruz). - Eskatutako gaia eta egitura erabili eta garatu. - Ortografia, gramatika eta sintaxia arauak bete. - Hiztegi egokia erabili, hitzak errepikatu gabe.

1.3. HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAKO EMAITZAK (GAZTELANIA)

3. grafikoan zure ikastetxeak ebaluazioaren irakasmailan *gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* lortu duen batez besteko puntuazioa adierazten da, zure ikastetxean ebaluazioan parte hartu duen ikastalde bakoitzeko batez bestekoarekin batera.

Ikastetxeko eta talde bakoitzeko batez besteko puntuazioa probako entzumeneko eta irakurmeneko itemak soilik kontuan hartuta kalkulatu da, baina ez dira kontuan hartu idazmenekoak. Izan ere, entzumeneko eta irakurmeneko itemak egonkorragoak eta alderatzeko errazagoak dira; aldiz, idazmenari dagozkionak erabat aldatzen dira ebaluazio bakoitzean eta, horrenbestez, horiekin ezin da konparaziorik egin.

Grafikoaren ostean, **3. taulan**, konpetentzia-maila horietako bakoitza deskribatzen da.



1.3. HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAKO EMAITZAK (GAZTELANIA)

3. taula. Konpetentzia-mailen deskribapena. *Hizkuntza-komunikazioa gaztelaniaz.*

Hasierako maila

Maila honetan dagoen ikaslearen diskurtso-trebetasunek adinari dagozkion komunikazio-ekintzak osatu gabe eta zati batean bakarrik gauzatzea ahalbidetzen diote, gehienetan komunikazio-helburua betetzen ez duelarik. Hizkuntzaren funtzionamendua era partzialean bakarrik menperatzen du, eta gutxitan bakarrik ezagutzen eta erabiltzen ditu hizkuntza-elementuak egoki.

Entzumenari eta irakurmenari dagokienez, ahozko zein idatzizko testu sinple baten zentzu orokorra antzemateko gai da, baldin eta modu argian aurkezten bazaio, ez baita gai zentzua ondorioztatzeko. Testuko ideia nagusia eta testuaren xedea ezagutzeko gai da eta baita informazio zehatza eta esplizitua identifikatzeko ere, bereziki datuak. Adin horretako ohiko hitz batzuen esanahia ere ezagutzen du.

Testu idatzien ekoizpenari dagokionez, testu sinpleak idatzeko gai da; hala ere, zailtasunak ditu emandako komunikazio-egoerari dagokion hizkuntza-erregistroa erabiltzeko. Batzuetan testu motaren oinarriko ezaugarriak erabiltzen ditu, eta eskatzen zaizkion zenbait datu ematen ditu; testu mota ez du erabiltzen xedea lortzeko behar den besteko osotasunaz eta eraginkortasunaz. Ideien antolamenduaren eta garapenaren aldetiko gabeziak erakusten ditu eta baita testuaren kohesioan ere. Hizkuntza-baliabideak neurri batean bakarrik menperatzen ditu eta hainbat akats egiten ditu hiztegian, gramatikan eta ortografian.

Erdi-maila

Maila honetan dagoen ikaslearen diskurtso-trebetasunek adinari dagozkion komunikazio-ekintzak egoki gauzatzea ahalbidetzen diote, gehienetan komunikazio-helburua betetzen duelarik. Hizkuntzaren funtzionamendua menperatzen du, eta hizkuntza-elementuak adinari dagokion moduan ezagutzen eta erabiltzen ditu.

Entzumenari eta irakurmenari dagokienez, hasierako mailan deskribatutakoaz gain, testuko ideia ezberdinak bereizteko gai da eta, baita ere, eskatutako informazio gehiena (datuak, ideiak...) aurkitzeko. Irakasmailari dagozkion maiztasun handiko hitzen edo esapideen esanahia ezagutzen du; zenbait ondorioztatze sinple egiteko gai da.

Testu idatzien ekoizpenari dagokionez, testuak komunikazio-xedea kontuan izanik, erregistro egokia erabilirik eta testu motaren oinarriko ezaugarriak errespetaturik idatzeko gai da. Ideiak nolabaiteko koherentziarekin aurkezten ditu testuaren xedea lortzeko. Testu-kohesioari laguntzen dioten hizkuntza-baliabide batzuk erabiltzen ditu. Arau gramatikal, lexiko eta ortografikoak hein handi batean betetzen ditu.

Maila aurreratua

Maila honetan dagoen ikaslearen diskurtso-trebetasunek adinari dagozkion komunikazio-ekintzak eraginkortasun handiaz gauzatzea ahalbidetzen diote, kasurik gehienetan komunikazio-helburua betetzen duelarik. Hizkuntzaren funtzionamendua menperatzen du, eta hizkuntza-elementuak bere adinerako egoki eta eraginkortasunez ezagutzen eta erabiltzen ditu.

Entzumenari eta irakurmenari dagokienez, hasierako eta erdi-mailan deskribatutakoaz gain, testuko ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gai da eta, baita ere, informazio zehatzak aurkitzeko eta testuaren pasarteren bat laburtzeko. Halaber, informazioa eta ezagupen pertsonala erlazionatzeko gai da. Informazio inplizitu edo anbiguorik gehiena identifikatzen du, eta bere irakasmilan maiztasun handikoak ez diren hitzen esanahia ezagutzen du.


Testu idatzien ekoizpenari dagokionez, xedea argi erakusten duten testuak idatzeko gai da, erregistro egokia erabilirik eta testu motaren oinarriko ezaugarriak errespetaturik. Ideiak koherentziarekin aurkezten eta garatzen ditu testuaren xedea lortzeko. Ideiak adinari dagozkion etorriaz, zuzentasun ortografikoaz eta gramatikaz adierazteko gai da.

1.4. HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOA GAZTELANIAZ. DIMENTSIOETAKO EMAITZAK

4. grafikoan ikastetxeak eta ikastalde bakoitzak ebaluatutako **hiru dimentsioetan (Entzumena, Irakurmena eta Idazmena)** lortu dituzten batez besteko emaitzak aurkezten dira.

- *Entzumena* mota desberdinetako zenbait testutan oinarritutako galderen bidez ebaluatzen da. Galdera horiek ikasleak, besteak beste, hurrengo honetarako duen gaitasuna neurtzen dute: testuen zentzu orokorra eta xedea identifikatzeko, informazio zehatza identifikatu edo hautatzeko eta testua kritikoki interpretatzeko.
- *Irakurmena* luzera eta mota desberdinetako testuei buruzko galderen bidez ebaluatzen da. Galderek ikasleak hurrengo honetarako duen gaitasuna neurtzen dute: lehen eta bigarren mailako ideiak bereizteko, testuaren helburua eta igorlearen xedea identifikatzeko eta, besteak beste, testuko informazio ezberdinak erlazionatzeko.
- *Idazmenean* ikasleek gutxienezko hitz kopurua (60 hitz Lehen Hezkuntzan eta 100 hitz DBHn) eta ezaugarri jakin batzuk dituen testu bat idatzi behar dute. Testu idatziaren balorazioan hurrengo hau hartzen da kontuan: emandako gaiaren egokitasuna eta garapena, testu idatziaren koherentzia eta kohesioa eta erabilitako lexikoa, gramatika eta ortografia.

4. taulan, ebaluatutako hiru dimentsioetan, hiru konpetentzia-mailak azaltzen dituzten adierazleak daude aurkeztuta.



1.4. HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOA GAZTELANIAZ. DIMENTSIOETAKO EMAITZAK

4. taula. Hizkuntza-komunikazioa gaztelaniaz. Dimentsioetako mailen deskribapena.

Erabilitako testuak	Hasierako maila Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira:
<p>ENTZUMENA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dibulgazio testua. - Komunikabideetako narrazioa. - Elkarrizketa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Dibulgazio testu batean, zentzu orokorra identifikatu, informazio zehatza antzeman eta identifikatu. - Komunikabideetako narrazio batean erabiltzen den hiztegia ezagutu.
<p>IRAKURMENA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Informazio testua. - Nobela baten pasarte. - Dibulgazio testua. - Ipuina. 	<ul style="list-style-type: none"> - Informazio testu batean hiztegia antzeman eta informazio zehatza identifikatu. - Nobela baten pasartearen igorlea antzeman, informazio zehatza eta gai nagusia identifikatu. - Informazio testu batean eta ipuin batean, testu mota eta testuaren xedea bereizi eta antzeman.
<p>IDAZMENA</p> <ul style="list-style-type: none"> -Senide baten biografia. 	<ul style="list-style-type: none"> - Testua eskatutako helburuari nekez egokitzen zaio. - Erregistro desegokia erabiltzen du edota testuaren garapena urria da. - Errepikapenak eta ideia desordenatuak erabiltzen ditu. - Biografia testu baten antolamendu-egitura osatu gabe aurkezten du. - Hiztegi, gramatika eta ortografia akats asko egiten ditu.
	<p>Erdi-maila Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira:</p>
<p>ENTZUMENA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dibulgazio testua. - Komunikabideetako narrazioa. - Elkarrizketa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Narrazio batean, informazio garrantzitsua bereizi. - Zenbait testutan, eskatzen zaizkion informazio zehatzak aurkitu eta testuaren xedea antzeman. - Gai hurbilei buruzko elkarrizketa batean informazio zehatzak identifikatu eta erlazionatu.
<p>IRAKURMENA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Informazio testua. - Nobela baten pasarte. - Dibulgazio testua. - Ipuina. 	<ul style="list-style-type: none"> - Informazio testu batean eta ipuin batean, eskatzen zaizkion informazio zehatzak aurkitu eta edukia bere ezagupen pertsonalekiko interpretatu. - Nobela baten pasarte bateko denbora-segidak ordenatu. - Ipuin bateko elementu inplizituak berregin.
<p>IDAZMENA</p> <ul style="list-style-type: none"> -Senide baten biografia. 	<ul style="list-style-type: none"> - Testua oro har eskatutako helburuari egokitzen zaio. - Eskatutako datu batzuk eman eta erregistro formala erabiltzen du. - Ideiak nolabaiteko progresioarekin ordenatzen ditu. - Biografia testu baten oinarritzko antolamendu-egitura aurkezten du. - Hiztegi egokia erabili eta oro har ortografia eta gramatika arauak betetzen ditu.
	<p>Maila aurreratua Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira:</p>
<p>ENTZUMENA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dibulgazio testua. - Komunikabideetako narrazioa. - Elkarrizketa baten narrazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Elkarrizketa baten narrazioa eta dibulgazio testu baten edukari buruzko inferentziak egin.
<p>IRAKURMENA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Informazio testua. - Nobela baten pasarte. - Dibulgazio testua. - Ipuina. 	<ul style="list-style-type: none"> - Informazio testu baten eta ipuin baten xedea identifikatu. - Nobela baten pasarte baten eta dibulgazio baten informazio zehatz konplexua hautatu eta edukari buruzko inferentziak egin.
<p>IDAZMENA</p> <ul style="list-style-type: none"> -Senide baten biografia. 	<ul style="list-style-type: none"> - Testua eskatutako helburu eta luzerari egokitzen zaio. - Eskatutako datuak garatu eta erregistro egokia erabiltzen du. - Ideiak hurrenkera logikoan aurkeztu eta, informazioa argiago emateko, testu antolatzailearen bat erabiltzen du. - Biografia testu baten antolamendu-egitura osoa aurkezten du. - Hitzak edo esapideak ez ditu alperrik errepikatzen. - Ortografia eta gramatika arauak betetzen ditu.

1.5. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIAKO EMAITZAK

5. grafikoan zure ikastetxeak ebaluatutako irakasmilian *Matematikarako konpetentzian* lortu duen batez besteko puntuazioa adierazten da, zure ikastetxean ebaluazioan parte hartu duen ikastalde bakoitzeko batez bestekoarekin batera. Grafikoaren ostean, **5. taulan**, konpetentzia maila horietako bakoitza deskribatzen da.

Proban, eguneroko bizitzako egoerei irtenbide egokiagoa emateari begira, matematikoki arrazoitzeko, matematika-arrazoibide bat ulertzeko eta matematika-hizkuntzaz komunikatzeko behar diren trebetasunak eta jarrerak ebaluatu ziren. Ikasleak proba burutzeko tresna egokiak erabili behar zituen eta, baita ere, matematika-ezagupenak beste era batzuetako ezagupenak integratu behar zituen.

Proba aukera anitzeko galderek eta erantzun irekikoek osatzen zuten eta ikasleek lan ezberdinak burutu behar zituzten beren trebetasunak erakusteko matematikarako konpetentziaren dimentsioetan: *Kopurua, Espazioa eta forma, Aldaketak, Erlazioak eta iurgabetasuna eta Problemen ebazpena*.

5. grafikoa. Matematikarako konpetentzia. Ikastetxeko eta ikastaldeetako batez besteko emaitzak.



1.5. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIAKO EMAITZAK

5. taula. Konpetentzia-mailen deskribapena. *Matematikarako konpetentzia.*

Hasierako maila

Maila honetan dagoen ikasleak zenbakien oinarrizko ezagupenak zenbakiak irakurtzeko, idazteko, konparatzeko eta ordenatzeko erabiltzen ditu. Eragiketa bateko problema oso sinpleak ebazten ditu batuketa, kenketa edo biderketa erabiliz, baina sarritan arazoak izaten ditu eragiketa bat baino gehiago eskatzen duten problemak ebazteko. Objektu ezagunen luzera neurrien estimazioak egiten ditu eta espazioan kokagune ezberdinak antzematen ditu. Kasu gehienetan, egoera sinpleetan tauletako eta grafikoetako datuak elkartzeko gai da.

Erdi-maila

Maila honetako ikasleak, hasierako mailan deskribatutako trebetasunez gain, batuketak, kenketak edo/eta biderketak egitea eskatzen duten problemak aise eta estrategia ezberdinak erabiliz ebazteko gai da. Igarkizunak eta logika eta eragiketa-arrazoiketako problema sinpleak ebazteko gai da. Batze eta biderkatze-egoeren inguruko problemak bi eragiketa ezberdin erabiliz ebazten ditu. Ohiko egoeretan magnitudeei eta neurriei buruzko informazioak interpretatzen ditu, eta neurriei buruzko problemak unitate ezberdinekin ebazten ditu (dirua, pisua, luzera, edukiera, denbora). Espazio-adierazpenaren oinarrizko sistemak erabiltzen ditu espazio fisikoari dagozkion informazioak interpretatzeko eta lantzeko; arrazoiketa espazialeko problema sinpleak ebazten ditu. Figura geometrikoak elkarren artean bereizten dituzten ezaugarri batzuk identifikatzen ditu. Tauletako eta grafikoetako informazioa lotzen du, eta problemak ebazteko erabiltzen du. Matematika-gai ezberdinen arteko loturak egiteko gai da, eta horri esker nolabaiteko konplexutasuna duten ariketak eta problemak segurtasunez ebatz ditzake.

Maila aurreratua

Maila honetan dagoen ikasleak, hasierako mailan eta erdi-mailan adierazitako trebetasunez gain, arrazoiketa landuagoak erabiltzen ditu, oinarrizko lau eragiketako batzuk (zatiketa barne) ebaztea edo magnitude bateko unitateak bihurtzea eskatzen duten problema originalak eta matematika-egoera konplexuagoak ebazteko. Oro har, egoera-arazoei aurre egiteko eta ebazteko segurtasuna du eta, baita ere, egindako kalkuluak eta emaitza matematikoki adierazteko.

1.6. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA. DIMENTSIONETAKO EMAITZAK

6. grafikoan, zuen ikastetxeak Matematikarako konpetentzia osatzen duten lau dimentsioetako bakoitzean lortu dituen batez besteko emaitzak azaltzen dira: *Kopurua, Espazioa eta forma, Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna eta Problemen ebazpena*.


6. taulan, konpetentziako lau dimentsioetako hiru konpetentzia-mailak deskribatzen dituzten adierazleak azaltzen dira.

Grafiko hori aztertzeko, irizpide hauek kontuan izan behar dira:

a) Txosten honetako 7. orrialdean azaldu dogun moduan, emaitza hauek joeraren adierazle gisa hartu behar dira; izan ere, horien fidagarritasuna eta balioa hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsioetako emaitzena baino askoz ere txikiagoa da. Dimentsio bakoitza neurtzeko erabili den item kopurua ez da, kasu askotan, nahikoa haren neurketa osoa bermatzeko.

b) Konpetentzia honetan ikastetxeak duen puntuazio orokorraz gain, dimentsio horietako bakoitzeko puntuazioak ere azaltzen dira. Kasu guztietan, dena den, Euskadiko batez besteko orokorra hartu da erreferentziazat. Erkidegoko batez bestekoaren ezker aldean adierazita dauden emaitzek ikastetxeak lortutako puntuazioa batez besteko hori baino baxuagoa dela adierazten dute, grafikoan ikus daitekeen proportzio berean. Eskualdeko emaitzek ikastetxeko puntuazioa Euskadiko batez bestekoa baino altuagoa dela erakusten dute.

6. grafikoa. Matematikarako konpetentzia. Dimentsioetako emaitzak.



1.6. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA. DIMENTSIOETAKO EMAITZAK

6. taula. Konpetentzia-mailen deskribapena *Matematikarako konpetentziako* dimentsioetan.

Hasierako maila

Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira:

- Kokaguneak, mugimenduak eta ibilbide errazak espazio erreal batean edo kale-izendegi oso simple (laukidun) batean identifikatu.
- Sarrera bikoitzeko taula baten eta barra edo marra diagrama baten oinarriko elementuak identifikatu eta interpretatu.

Erdi-maila

Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira:

- Zenbakizko testuetan (erakusleihoetako prezioak, publizitate liburuxkak, berriak...) ageri diren zenbaki naturalen eta ohiko zatikien balioa interpretatu.
- Igarkizun txikiak, zenbakizko jolasak eta zenbakizko arrazoiketa eta arrazoiketa logikoa eskatzen duten problemak ebatzi.
- Ebazpen metodorik egokiena (mentala, algoritmikoa edo kalkulagailua) aukeratu, eta kalkuluak egiteko jarraitu duen prozedura modu errazean adierazi.
- Eguneroko testuinguruetan unitate ezberdinetako neurriei buruzko problemak ebatzi (dirua, pisuak, luzerak, edukierak, orduak, minutuak eta segundoak).
- Eguneroko testuinguruetan magnitudeei eta neurriei buruzko informazioak eta mezuek (zenbakizko testu errazak) zentzuz interpretatu.
- ...
- Arrazoiketa espazialari buruzko oinarriko problemak ebatzi.
- Kale-izendegietan eta plano (laukidun) errazetan distantziak jo eta neurtu.
- Figura lau edo espazial bat antzeman bere ezaugarrien ahozko deskribapenean oinarriturik.
- ...
- Problema ebatzi eguneroko egoeretatik (kirol sailkapenak, tenperatura taulak...) hautatutako sektore-grafikoetan aurkeztutako datuen interpretazioan oinarriturik.
- ...
- Trukea eta konbinazioa eskatzen duten batuketa-egoera konplexuetan (pentsamendu itzulgarria) eragiketa bakarreko problemak ebatzi.
- Biderketa-egoeretan eragiketa bateko (eskalarrak) edo biko (neurrien errepikapena) problemak ebatzi.
- Konbinazioa eta zenbaketa sistematikoa eskatzen duten problema errazak ebatzi

Maila aurreratua

Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira:

- Nolabaiteko zailtasuneko igarkizun txikiak, zenbakizko jolasak eta zenbakizko arrazoiketa eta arrazoiketa logikoa eskatzen duten problemak ebatzi.
- Eguneroko testuinguruetan unitate ezberdinetako neurriei buruzko problemak ebatzi (dirua, pisuak, luzerak, edukierak, orduak, minutuak eta segundoak), magnitude bereko unitaterik ohikoenen arteko bihurtetarako eginez.
- ...
- Kale-izendegietan eta planoetan distantzia errealak jo eta neurtu, erreferentzia metrikoak erabiliz.
- Forma eta gorputz geometrikoen elementu bereizgarriak (aldeak, aurpegiak, angeluak, erlazioak...) deskribatu, geometria hiztegi egokia erabiliz.
- ...
- Problema zenbakizko datu garrantzitsuak identifikatzeko eta problema ebatz dezaketen eragiketarako antzemateko zenbait esanahi, erlazio, arrazoiketa eta estrategia erabili.
- Alderatze eta berdintze-egoera konplexuetan (pentsamendu itzulgarria) eragiketa bakarreko problemak ebatzi.
- Behar baino datu gehiago dituen problema batean, behar diren datuak birformulatu edota erabili, eta problema ebatzi.

1.7. GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIAKO EMAITZAK

7. grafikoan, zuen ikastetxeak ebaluatutako ikasmilan *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* lortu duen batez bestekoa eta ebaluazioan parte hartu zuen ikastetxeko talde bakoitzaren batez bestekoak azaltzen dira. **7. taulan**, grafikoaren jarraian azaltzen denean, konpetentzia-maila horietako bakoitza azaltzen da.

Konpetentzia horren probaren bidez, ahalik eta modurik integratuenean, ikasleek gizartearen eta beren buruaren inguruan hausnarketa egiteko, inguruneko eta mundu mailako arazo sozial eta gatazka batzuk interpretatzeko, gizarte demokratiko baten balioak aztertzeke eta beren egiteko, eta, balio etikoen sistematik abiatuta, gatazkek konpontzeko garaian esku hartzeko duten gaitasuna ebaluatu da.

